# BUSTURIALDEKO VII. ENPRESA IDEIA LEHIAKETA

## *OINARRIAK*

Bermeoko eta Gernika-Lumoko udaletako gazteria zerbitzuek eta Ajangiz, Arratzu, Busturia, Ereño, Forua, Gautegiz Arteaga, Kortezubi, Mendata, Morga, Mundaka, Murueta, Nabarniz eta Sukarrieta biltzen dituen Urremendi Landa Garapen Elkarteak, Busturialdeko VII. Enpresa Ideia Lehiaketa abian jarri dute Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera, "Lana bilatzea, Lana da" eskualdeko gazteei laguntzeko programaren barruan.

**1.- HELBURUAK**

- Busturialdean ekintzailetza-kultura zabaltzea.
- Enplegua eta aberastasuna sortzea Busturialdeko eskualdean.
- Eskualdeko ekonomia bultzatzea.
- Enpresa-ideiarik onenak saritzea.

**2.- NORI ZUZENDUTA DAGO?**

Lehiaketa 18 eta 35 urte bitarteko gazte guztiei zuzenduta dago, beti ere haien enpresa-ideiak (enpresa- edo produkzio-zentroa) Busturialdeko eskualdean kokatzen badira. Enpresa bat sortzeko ideiak edo dagoeneko 2020an sortu diren enpresak izan daitezke, baina Busturialdean egon behar dira, eta horien sustatzaileek adierazitako adin-betekizuna bete behar dute.

**3.- SARIAK**

**1. saria:** 3.000 €* + Arratzuko Elkartegiko langune bat urte batez doan**+ Urtebeterako aholkularitza zerbitzua doan***
**2. saria:** 2.000 €* + Arratzuko Elkartegiko langune bat urte batez doan ** + Sei hilabeterako aholkularitza zerbitzua doan***

**Lehen sektoreari lotutako ideiarik onena:** 1.000 €* (Aurreko sarietako baten bat jaso ez badu).

**Sari berezia: COVID-19aren eragina arintzera bideratutako enpresa-ideiarik onena:** 1.000 €* (Aurreko sarietako baten bat jaso ez badu).

Epaimahaiaren iritziz ideiek ez badute gutxieneko maila, sariak eman gabe geratu daitezke.

Saritutako ideia guztiak Busturialdeko gazteria zerbitzuen esku geratuko dira, zeinek enpresa-ideia abian jartzeko ahalmena izango duten, ideia aurkeztu duenarekin batera zein bera gabe.

Bizkaia foru aldundia diputación foral · Gernika Lumo gure sustraiak · Bermeoko Udala · Urremendi

Ajangiz · Arratzu · Busturia · Ereño · Forua · Gautegiz-Arteaga · Kortezubi · Mendata · Morga · Mundaka · Murueta · Nabarniz · Sukarrieta

** Oharra: Sariaren %70a sari banaketaren egunean jasoko da. Gainerako %30a, aldiz, sarituek beren enpresa-proiektuak/ideiak garatu eta martxan jartzerakoan jasoko da. Hori egiaztatzeko dagokiezan ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.*

*** Oharra: Arratzuko Elkartegian dauden languneen erabilgarritasun-aukeren eta espazioaren araberakoa.*

*** Zerga, lan eta kontabilitate-aholkularitza. Torrealday Aholkularitzak emandako saria.*

**4.- PROIEKTUAK BALORATZEKO KONTUAN HARTUKO DIREN IRIZPIDEAK ETA BALORATZEKO MODUA**

Epaimahaiak jarraian adierazitako irizpide, meritu eta elementuak baloratuko ditu aurkeztutako proiektuetan:

- Izaera berritzailea: balio erantsia edukitzea edota originala izatea.
- Enplegua sortzeko aukera eta horien kalitatea.
- Lantalde sustatzailearen gaitasuna (profil egokiak) proiektua arrakastaz garatu eta martxan jartzeko.
- Proiektua Busturialdean gauzatzeko aukera edo eskualdera egokitzekoa.
- Proiektuaren garapen- eta deskribapen-maila.
- Proiektuaren jasangarritasuna (ingurumenari zein ekonomiari dagokienez).
- Gizarte-eragina.

**Bozketaren-arauketa:**

**Lehenengoa.-** Epaimahaikideak ezagutzera emango dira proiektuak aurkezteko epea amaitu eta 10 eguneko epean, Urremendiko iragarki-taulan, Bermeoko eta Gernika-Lumoko Udaletako iragarki tauletan eta www.gaztedibusturialdea.eus webgunean. Erakunde antolatzaileek erabakiko dute epaimahaia hiru, bost ala zazpi kidek osatuko duten.

**Bigarrena.-** Lehiaketa eta sariak (guztiak edo batzuk) hutsik geratu ahalko d(ir)a epaimahaiak egokitzat jotzen badu, edo uste badu aurkeztutako ideiek ez dutela gutxieneko maila.

**Hirugarrena.-** Epaimahaiak aurkezten diren proiektu guztiak baloratu beharko ditu. Bozketaren hasieran, epaimahaikideek gehiengoz erabaki beharko dute proiektuak osorik baloratuko dituzten (zazpi irizpideak kontuan hartuta) ala balorazio-atal bakoitzari portzentaje bat esleituko dioten. Era berean, eta gehiengoz beste behin, erabaki ahalko dute beste balorazio-eredu bat erabiltzea, betiere lehen adierazitako irizpideei jarraikiz.

**Laugarrena**.- Epaimahaiaren botoen aurka ezingo da ez apelaziorik ez errekurtsorik aurkeztu, haien eginkizuna, neurri handi batean, baloraziozkoa baita.

**5.- EPEA**

Proiektuak aurkezteko azken eguna: **2020/11/20 (14:00ak arte)**.

**6.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA***

- Izena-emateko fitxa, beteta.

  ***Hautazkoa: Proiektuaren azalpen- eta garapen-memoria aurkeztu ahal izango da, ebaluatuko diren irizpideen araberakoa.*

- Beste gutun-azal batean (itxita), ideia aurkezten duenaren edo dutenen datuak:

  ✓ NANaren fotokopia(k).
  ✓ Curriculuma(k).
  ✓ Aurkezten den ideiaren izenburua.

*Agiri guztiak paperean aurkeztu beharko dira.

**7.- INFORMAZIO GEHIAGO ETA ESKAERAK JASO ETA AURKEZTEKO TOKIAK**

- **Bermeoko Gazteentzako Informazio Zerbitzua (GIZ)**
  Gizarte eta Kultura Etxea - Irakaskintza 14-16 - 48370 BERMEO
  giz@bermeo.eus – Tel.: 94 617 91 58 – www.gizbermeo.blogspot.com

- **Busturialdeko Herri Txikien Gazteria Zerbitzua – URREMENDI LGE**
  Domingo Alegria Enparantza z.g. (Gernikako plaza, bulegoak) - 48330 GERNIKA-LUMO
  gazteria@urremendi.org - Tel.: 94 625 76 09

- **Gernika-Lumoko Gazteentzako Informazio Bulegoa**
  Foruen Plaza z.g. - 48300 GERNIKA-LUMO
  gazteria@gernika-lumo.net - Tel.: 94 627 02 15

**8.- SARI-BANAKETA**

Sariak 2020ko abenduan banatuko dira (data zehazteke).

Jendeari ezagutaraziko zaio, eta parte-hartzaileei sari-banaketaren ordua eta tokia jakinaraziko zaizkie, baita eguna ere. Izan daitezkeen aldaketa guztiak

www.gaztedibusturialdea.eus webgunean eta Gaztedi Busturialdearen eta erakunde antolatzaileen gizarte sareetan argitaratuko dira.

**9.- JABETZA INTELEKTUALA**

Busturialdeko Gazteria Zerbitzuek (Urremendi LGE eta Bermeoko eta Gernika-Lumoko Udalak) saritutako proiektuen ideia guztiak eta jabetza intelektuala bereganatuko dituzte. Horrenbestez, askatasun osoa edukiko dute enpresa-ideia martxan jartzeko, zuzenean edo hirugarrenen bitartez eta ideia aurkeztu duen pertsonarekin batera edo hura barik, betiere sortzaileak (edo sortzaileek) ez badu ideia garatzeko asmorik.

**10.- DATU PERTSONALAK**

Parte-hartzaileek parte hartzeko eskaerarekin batera sinatu beharko dute berariaz onartzen dutela beren datuak Urremendi Landa Garapen Elkartearen eta Bermeoko eta Gernika-Lumoko udalen datu-baseetan sartu, erabili eta gordetzea; bai eta Urremendi Landa Garapen Elkartearen bazkide diren udalerriei eta Bizkaiko Foru Ogasunari lagatzea ere.

Bestalde, lehiaketan parte hartzean baimena emango dute haien izena eta bi abizenak aurkeztutako proiektuari lotuta zabaltzeko: prentsan, hedabideetan eta iragarki-tauletan. Halaber, berariaz baimenduko dute sari-banaketan ateratako argazkiak −zeinetan gertatu liteke parte-hartzaileak agertzea− gorde, erabili eta zabaltzea: prentsan, hedabideetan eta iragarkitauletan nahiz lehiaketaren hurrengo edizioetako iragarkietan.

Busturialdea, 2020ko urriaren 1a

# GAZTEDI BUSTURIALDEA

# VII. ENPRESA IDEIA LEHIAKETA - 2020

## IZENA EMATEKO ORRIAK

# 1. Enpresa ideia

## 1.1. Ideiaren deskribapena (gutxienez 10 lerro)

Mesedez, laburbildu ezazu ideia, honako alderdi hauek kontuan hartuta: Nola bururatu zitzaizun ideia? Zertan oinarritzen da jarduera ekonomikoa? Zein da produktua/zerbitzua eta nori zuzentzen zaio? Zein da enpresa-jarduerarako kokapenik aproposena?

## 1.2. Izaera berritzailea eta hazkunde-ahalmena

Zein da enpresa-ideia horren izaera berritzailea? Zetan datza berrikuntza?

Zer berrikuntza dakar lehiakortasunari begira? Zertan desberdintzen da?

Zer hazkunde-ahalmen dauka zure enpresa-ideiak epe ertainera / luzera?

Nazioarteko izaera. Zure enpresa-ideiak, ba ote du nazioartekotzeko aukerarik? Zeintzuk?

Zer balio erantsi eskainiko diozu bezeroari/erabiltzaileari eta oro har gizarteari?

## 1.3. Enpresa eratzea

Enpresa sortuko zenuke? Zeure burua enpresa bat sortzen ikusten duzu?

Enpresa-ideia abian jartzekotan, zein rol hartu nahiko zenuke?

## 1.4. Bezeroak

Nori zuzentzen zaio produktua / zerbitzua? Non daude bezero potentzialak?

## 1.5. Ekonomia eta finantzako plana

Zein inbertsio egin behar dira enpresa sortu eta martxan jartzeko? (instalazioak, prototipoa, makinak…):

## 1.6. Proiektuaren ingurumen- eta ekonomia-iraunkortasuna argudiatu/azaldu

Zerbitzuaren gastu kontrola edota zerbitzuaren tarifak azaldu be

# 2. Enpresa ideiari buruzko datuak

## 2.1. Enpresa sortzeko balizko data

| |
|---|
| |

## 2.3. Enpresa sortzean eta lehenengo 5 urteei begira, jarduerarako beharko den lanpostu-kopurua

| | |
|---|---|
| Lanpostu-kopurua enpresa sortzeko orduan | |
| Lanpostuen ezaugarriak: lanpostu-motak eta bakoitzaren zereginak | |

| | |
|---|---|
| Lehenengo bost urteei begira, jarduerak eskatuko duen lanpostu-kopurua | |
| Lanpostuen ezaugarriak: lanpostu-motak eta bakoitzaren zereginak | |

## 2.4. Enpresa-ideia non kokatu daitekeen

| |
|---|
| |

## 2.5. Beharrezko azpiegiturak

| |
|---|
| |

## 3. Enpresa-ideiaren egungo egoera

**Zehazki, zein fasetan dago enpresa-ideia gaur egun? (adierazi ezazu x batekin markatuta)**

| | |
|---|---|
| Ideia hutsa da | ☐ |
| Ideia hainbat pertsonekin jorratu/kontrastatu dut: | ☐ |
| • Bezero potentzialekin. | ☐ |
| • Jarduera berrian nire lankideak izan litezkeenekin. | ☐ |
| • Ideia garatzen lagundu didatenekin (diru-laguntzak, kokapena…). | ☐ |
| • Beste batzuekin: | ☐ |
| Merkatu-azterketa egin dut. | ☐ |
| Produktuaren / Zerbitzuaren bideragarritasun teknikoa lantzen ari naiz (prototipoa, produktua garatzea, produktua merkatuan saiatzea…). | ☐ |
| Produktua finantzatzea lortu dut edo horretan nabil. | ☐ |
| Enpresa-ideiaren kokapenik egokiena aztertzen ari naiz. | ☐ |

## 4. Sustatzaileen datuak

**Sustatzailearen edo sustatzaileen profila DATU PERTSONALIK GABE aurkeztea (prestakuntza, dedikazioa, gaitasunak...)?**

## 5. Zeure iritzia

**Zure ustez, zergatik merezi duzu enpresa-ideien lehiaketa hau irabaztea?**

**Enpresa-ideiaren asmatzaileari / asmatzaileei buruzko datuak (itxitako gutun-azal batean aurkeztu beharko dira, asmatzaile(ar)en CVarekin batera)**

| DATU PERTSONALAK | |
|---|---|
| IZENA ETA BI ABIZENAK | |
| NAN ZENBAKIA | |
| JAIOTZE DATA | |
| HELBIDEA | |
| HERRIA | |
| POSTA KODEA | |
| PROBINTZIA | |
| TELEFONO ZK. | |
| HELBIDE ELEKTRONIKOA | |

| DATU PERTSONALAK | |
|---|---|
| IZENA ETA BI ABIZENAK | |
| NAN ZENBAKIA | |
| JAIOTZE DATA | |
| HELBIDEA | |
| HERRIA | |
| POSTA KODEA | |
| PROBINTZIA | |
| TELEFONO ZK. | |
| HELBIDE ELEKTRONIKOA | |

**Enpresa-ideiaren asmatzaile(ar)en prestakuntzari eta lan-egoerari buruzko datuak**

| PRESTAKUNTZA ETA LAN-EGOERA | | | | |
|---|---|---|---|---|
| IKASKETAK | | | | |
| IKASKETAK EGITEN ARI ZARA? | BAI | | EZ | |
| | ZEINTZUK? | | | |
| LANGABEZIAN ZAUDE? | BAI | | EZ | |
| | NOIZTIK? | | | |
| LANEAN ZAUDE? | BAI | | EZ | |

| PRESTAKUNTZA ETA LAN-EGOERA | | | | |
|---|---|---|---|---|
| IKASKETAK | | | | |
| IKASKETAK EGITEN ARI ZARA? | BAI | | EZ | |
| | ZEINTZUK? | | | |
| LANGABEZIAN ZAUDE? | BAI | | EZ | |
| | NOIZTIK? | | | |
| LANEAN ZAUDE? | BAI | | EZ | |

**Enpresa-ideiaren asmatzaileari / asmatzaileei buruzko datuak (itxitako gutun-azal batean aurkeztu beharko dira, asmatzaile(ar)en CVarekin batera)**

| DATU PERTSONALAK | |
|---|---|
| IZENA ETA BI ABIZENAK | |
| NAN ZENBAKIA | |
| JAIOTZE DATA | |
| HELBIDEA | |
| HERRIA | |
| POSTA KODEA | |
| PROBINTZIA | |
| TELEFONO ZK. | |
| HELBIDE ELEKTRONIKOA | |

| DATU PERTSONALAK | |
|---|---|
| IZENA ETA BI ABIZENAK | |
| NAN ZENBAKIA | |
| JAIOTZE DATA | |
| HELBIDEA | |
| HERRIA | |
| POSTA KODEA | |
| PROBINTZIA | |
| TELEFONO ZK. | |
| HELBIDE ELEKTRONIKOA | |

**Enpresa-ideiaren asmatzaile(ar)en prestakuntzari eta lan-egoerari buruzko datuak**

| PRESTAKUNTZA ETA LAN-EGOERA | | | | |
|---|---|---|---|---|
| IKASKETAK | | | | |
| IKASKETAK EGITEN ARI ZARA? | BAI | | EZ | |
| | ZEINTZUK? | | | |
| LANGABEZIAN ZAUDE? | BAI | | EZ | |
| | NOIZTIK? | | | |
| LANEAN ZAUDE? | BAI | | EZ | |

| PRESTAKUNTZA ETA LAN-EGOERA | | | | |
|---|---|---|---|---|
| IKASKETAK | | | | |
| IKASKETAK EGITEN ARI ZARA? | BAI | | EZ | |
| | ZEINTZUK? | | | |
| LANGABEZIAN ZAUDE? | BAI | | EZ | |
| | NOIZTIK? | | | |
| LANEAN ZAUDE? | BAI | | EZ | |

**Deskribatu itzazu hemen enpresa-ideiaren asmatzailearen ezagutzak eta lan-esperientzia, bai eta enpresa-ideiarekin duen lotura ere.**

**JABETZA INTELEKTUALA**

*Hemen sinatzen duen pertsonak, bere ideiak saria izanez gero, bere proiektuaren ideia, eta horren jabetza intelektuala, Busturialdeko Gazteria Zerbitzuen esku gelditukо direla onartzen du (Urremendi LGE eta Gernika-Lumo eta Bermeoko Udalak), eta horrenbestez, askatasun osoz, zuzenean edo beste batzuen bitartez, enpresa ideia martxan jartzeko eskumena izango dutela onartzen du, ideia eman duen pertsonarekin edota hau gabe, beti ere ideia sortzaileek hau garatzeko asmorik ez badute.*

**DATU PERTSONALEN BABESA**

*Hemen sinatzen duen pertsonak, berariaz, bere datuen biltegiratze, tratamendu edo kontserbazioa onartzen du Urremendi Landa Garapen Elkartean ideia lehiaketako izen-ematerako "bezero eta/edo hornitzaile" izeneko fitxategian, Gernika-Lumoko Domingo Alegria Enparantza z/g helbidean egonik beharrezko aldaketa, zuzenketa edo baliogabetzeak egiteko.*

*Hemen sinatzen duen pertsonak, berariaz, bere datuak lagatzen dizkio Urremendi Landa Garapen Elkartearen bazkide diren udalei, eta bereziki Gernika-Lumo eta Bermeoko Udalei eta baita Bizkaiko Foru Ogasunari ere.*

*Datuen aldaketa, zuzenketa edo baliogabetzeak Urremendi LGEn bideratuko dira eta honek datuak lagatako erakundeetan ere aldaketa, zuzenketa eta baliogabetzeak bideratzea ekarriko du.*

*Hemen sinatzen duen pertsonak, berariaz, proiektuarekin lotuta euren izen eta bi abizen hedatzeko baimena ematen dute (prentsan, komunikabideetan eta iragarki tauletan), baita sari banaketan ateratako eta parte hartzaileak agertu daitezkeen argazkien biltegiratzea eta erabilera onartzen dute ere (prentsan, komunikabideetan eta iragarki tauletan, baita lehiaketaren hurrengo edizioetako karteletan).*

……. n, 2020ko ……..…….. n …….. n

Sinatuta ……